



# SAN TI KU TZAK 2020

#

2020ko Legazpíko jaíak etxetik



Duela urtebete herriko jaíak ospatzen genituen herriko talde eta elkarteekin batera prestatutako egitarau zabalarekin.

Aurten maiatzeko jaíak modu guztiz ezberdinean biziko ditugu, COVID-19aren ondorioz

Jai hauetako ekitaldi tradizionalak bertan behera utzi behar izan dira, bizi dugun osasun-pandemia egoerak ezarritako konfinamenduagatik.

Hori dela eta, udalak 2019ko Santikutz jaietako bideo eta argazki bilduma batzuk prestatu ditu eta udalaren webgunean jarriko ditu ikusgai, aurten ere herriko jaíak goza ditzagun baina, hori bai, etxetik.

Badirudi tunelaren amaieran argia ikusten hasi dela, baina ahalegin bat egiten jarraitu behar dugu COVID-19 birusarekin ez kutsatzeko.

Gutxiago falta da martxoaren 14an etenda geratu zen gure bizimodua berreskuratzeke. Guztion artean lortuko dugu!.

Gora Legazpi!

Koldobike Olabide Huelga  
Legazpíko Alkatea



LEGAZPIKO  
UDALA

## 2020ko legazpíko jaíak etxetik

### Apirilaren 30a, osteguna

- ✚ udaletxeko balkoi nagusia apaintzea
- ✚ Legazpíko bandera haga erdian jartzea, COVID-19ko pandemiaren biktima guztien dolu gisa
- ✚ 2019ko jaíetako txupínazoaren bideoa udalaren webgunean

### Maiatzaren 1a, ostirala

- ✚ 2019ko haurren danborradaren bideoa udalaren webgunean

### Maiatzaren 2a, larunbata

- ✚ 2019ko ganadu feriarene bideoa udalaren webgunean
- ✚ Herri-danborradaren bideoa udalaren webgunean

### Maiatzaren 3a, igandea SANTI KUTZ EGUNA

- ✚ 2019ko Legazpíko ezpatadantzaren eta Olaría saría ematearen bideoa udalaren webgunean
- ✚ Euskaraldiaren aurkezpen-bideoa udalaren webgunean

